

Horrela ezin

Hitzen trabeskatzeak ez du mugarik. Azken boladan, trabeskatuen artean trabestuena: inposizioa. Eta erabiltzen azkena Podemos-Ahal Duguko idazkari Lander Martinez. Hona botatako harribitxia: “Ez dugu erabakitze eskubidea inposatzeko bloke bat osatuko”. To eta no. Gehien goaren nahia utikan. Eskubideak komun-zulotik Demokrazia eta ordezkaritzaren sistema bera hankaz gora jarriko luke bere irizpideak. Inposizioaren diskurtso hori ezaguna zaigu. Espainiako eskuma atzerakoienak darabilen argudiaketa gaiztotua eta hizkera pozoitua bera da. Kataluniari buruz behin eta berriro entzuten dugun hori berori: hauteskundeak irabazita aurrera eramaten den proiektua inposizioa eta proiektu totalitarioa ei da; gainerako gutxiengoak defendatzen duena, ordea, bizikidetzaren orekatua. *Harrapazank!*

Zerk egiten du, bada, eskubide bat eskubide? Gauzatzeko aukera bermatuta izateak. Bestela aldarrikapen hutsari buruz ariko ginateke, ez eskubideaz. Ez da EAEko alderdi moreko ordezkariak eskubideen gauzatzeari mugak jartzen dizkion lehen aldia. Gogoan iltzatuta ditut joan den urteko urtarri-leko manifestazioaren harira Martinezek esandakoak: presoak euskal herriratzeko baldintza gisa jarri zuen eragindako minaren aitortza. Eskubide baten urratzeak beste bat estaliko balu bezala. Lotsagorritzeko modukoa izan zen Madrildik Iñigo Errejonek askoz zentzu gehiagorekin irmoki esatea ez dagoela aitzakiarik oinarritzko eskubideak ez defendatzeko, eta, hartara, manifestazioarekin bat egiten zuela. Aurten ere, beste horrenbeste gertatu da, Martinezek ordezkatzeko duen Ahal Duguko sektoreak “aitzakia” berbera jarri du deialdiarekin erakunde gisa bat ez egiteko (Errejonek erabilitako hitz bera erabiltze aldera).



Estitxu Garai Artetxe

EHU-KO IRAKASLEA

@egarai

Podemos inguruko zenbait lagunek ikuskera zurruna izateko motiboa sobera ezaguna da: nazionalismo espainiarraren sukarrak jota egotea. Hori bai dela nazionalismoa eta ez Espainiako Estatuan nazionalista izendatutako independentismoarena. Ezkerreko abertzaletasunari egiten dizkieten kritika guztiak banan-banan betetzen dituzte

Dena esateko, aipagarria da jarreraren guztiz bestelakoa dutela Maria Valiente eta Neskutz Rodriguez alderdikideek,

idazkari nagusi izateko Lander Martinezekin lehiatu ziren bi emakumeek, alegia. Manifestazioarekin baldintzarik gabe bat egitearen aldekoak ziren Ahal Duguren barneko “Denontzat *Para Todas*” eta “Zurekin” joeretako kideak. Horrek erakusten du Ahal Duguren jarrera bestelakoa izan zitekeela, Martinezek bere hautagaitza “inposatu” ez balu (ironia suma bedi lerro artean). Proiektu politiko guztietan dute pisua gidatzen duten pertsonen, baina gai askotan *indefinizioa* tresna gisa erabiltzen duen alderdi baten kasuan are gehiago. Nafarroan ere urak nahasi datoz, eta ikusteko dago pertsona aldaketak proiektuan zein eragina izango duen.

Podemos inguruko zenbait lagunek ikuskera zurrun hori izateko motiboa, alta, sobera ezaguna da: nazionalismo espainiarraren sukarrak jota egotea. Hori bai dela nazionalismoa eta ez Espainiako Estatuan nazionalista izendatutako independentismoarena. Ezkerreko abertzaletasunari egiten dizkieten kritika guztiak banan-banan betetzen dituzte. Besteak beste, pertenezia sentimenduak itsututa ezkerreko printzipioak alboratzea. Badirudi bai bertako Podemosi nola Katalunian en Komuneng inguruko sektoreari kosta egiten zaiela onartzea euren ere nazionalistak direla, espainiar nazionalistak, alegia. Bestela nekez uler daitezke jarrera asko. Eta kontuz, ez nago ni talde-izaera identitarioaren aurka, ezta gutxiago ere. Halere, Katalunian gertatu den bezalaxe, independentismoa eta nazionalismoa bereizteak kalte baino askoz mesede gehiago egingo lioke hemengo mugimendu independentistari ere, indefiniziora jokatzea zailtzen baitu. Gaur egun, askotan, kategoria sinpleetara mugatzen da gure ikuspegi politikoa, eta horregatik du hitzak zorroztu eta fintzeak horrenbesteko garrantzia norbere ikuskera “inposatzeko”. ■